

Egoiliarren integrazio sozialaren aldeko apustua egiten dugu

Azken urte hauetan, gure apustua, pertsonen motibazioaren eremuan, giza baliabideen kudeaketari dagozkion tresnak erabiltzean datza.

Egoiliarren ahalduz bultzatzea, buruko trabak apurtzeari lagunduz, egiten duenari zentzua emanez, eta instituzionalizazioa, narriadura fisikoa, menpetasuna, eta gaitasun kognitiboaren galera ez direla arrazoiak bizitza normalizatuaz ez gozatzeko erakutsiz. Badakigu gizartean parte hartzea eta bertan integratzea funtsezko zatia bihurtzen direla.

Oinarritzko alde hauek proposatzen ditugu: beste taldeekiko harremanak bultzatzea, belaunaldien arteko topaketa puntuak garatu eta sortzea, egiten dutenei erabilgarritasuna ematea, euren istorioak berreskuratzea eta bizitzako bizipenei balioa ematea, utzitako harremanak berreskuratzea, zentroetara dena hurbiltzearen beharrez, zentroetatik irtetea, proiektuekin konprometitzea,



konektibitatearen alde egitea, teknologia berrien erabilera erakustea, orain egiten ez dituzten gauzak berriro egin ditzaten, gaurkotasuna jakinaraztea, boluntarioak izatea eta bidaiatzea.

Azken finean, izateko, egiteko eta erabakiak hartzeko gaitasuna berreskuratzea, berriro pertsona aktiboak izan daitezen.

Gure egutegi solidariotako bat eskura ezazu! Gabonetarako gure



Barrika Barri eta Kirikiñoko egoiliarrek berriz landu dute egutegi solidarioa, gizartean euren baliotasuna adierazteko. Aukera honetan, protagonistak dira gure egoiliarrek euren senideekin batera. Bildutako dirua helburu solidario batera joango da.

Gorde zure alea!

Gabonetarako gure loteria zenbakia lor ezazu!

ARTEA Loteriak saldutako kopuruaren %1 emango du eta Barrika Barri beste %1 gehituko du!

Helburua: 2017ko RSE proiektua

Gorde zure alea!



Bide Nagusia 7
Barrika 48650
Telf. 94 677 44 77
Fax. 94 677 44 32

barrikabarri@euskoges.com



Torre Gorostizaga 2 y 4 Bil-
bao 48004
Telf. 94 412 74 00
Fax. 94 411 08 58

kirikiño@euskoges.com



Bizi Gabonak gure egoitzetan

Gabonetarako jardueren programa aurreratzen dizuegu



Barrika Barrin

- Ab. 1: Olinpiadak. Plentziako eskola
- Ab. 19: Jaiotza bizia Kirikiñorekin.
- Ab. 21: Tomas Deuna. Sukaldaritza tailerra (indabak sakramentuekin, hostorea, Bernard-en saioa eta saskia txerritxu-itsulapikoarekin zozkatzea)
- Ab. 29: Poetaliako kideek Gloria Fuertes-en ibilbidea errezitatuko dute.
- Ab. 31: Sorpresen zuhaitza
- Ab. 25 eta Ur. 1: Bingo berezia
- Ur. 6: Bingo berezia

Gabonetan zehar:

Egutegi solidarioa eta gozokiak saltzea
Postalen lehiaketa eta azoka solidarioa

Kirikiñon

- Ab. 4tik 10era: Azoka solidarioa
- Ab. 15: Merienda (txurroak eta txokolatea eta Zentro aragoiarraren Abesbatza)
- Ab. 19: Jaiotza bizia Barrika Barri egoitzan
- Ab. 21: Tomas Deuna. Tailerra; talo txorizoarekin eta belaunaldien arteko jarduera Berrio-Otxoa ikastetxearekin
- Ab. 22: 2018 urterako desioak elkarrekin trukatzeko
- Ur. 6: Errege-opila

Gabonetan zehar:

Egutegi solidarioa saltzea
Dantzak eta Gabon-kantak

Alzheimerren alde dantzaten dugu

Barrika Barri eta Kirikiñoko nagusiek, (AFA) Alzheimer dutenen Senideen Bizkaiko Elkartearekin, eta (Fekoor) ezgaitasun fisiko edo organikoa duten pertsonen Federakundearekin batera, Bilbon dantzatu zuten alzheimer dutenei eta euren zaintzaileei laguntza adierazteko.

Ekimena Euskadi plazaren inguruan garatu zen, Alzheimer Nazioarteko Eguna zela eta, zapatu horretan egin zen martxaren aurrean. Zehazki, alzheimer dutenak agerira jartzeko Carlos Vives eta Shakiraren "La bicicleta" abestia dantzatu zuten. Primeran pasatu genuen.





DESTACADOS



Orain gutxi, Olentzeroren etxera joan ginen. Oso ondo pasatu zuten gure egoiliarrek txango atsegin honetan

Barrika Barrin gaikako jai asko antolatzen ditugu, eta gure egoiliarren senideak beti gonbidatzen ditugu.



Kirikiñon gure lehenengo baratzea estreinatu dugu. Sarrera ona eduki du

Tomateak oso gozoak daude!



Kirikiñon martxan jarri dugun erorketak saihesteko tailerrei esker, gure nagusiak, batez ere Eguneko Zentrokoak, beldurrik gabe ibil daitezke kaletik



Mota askotako jokoak eta jarduerak eginez, adibidez, musikoterapia tailerren bitartez, egoiliarrak pizten ditugu



Al servicio de nuestros mayores



Sabina, Barrika Barriko egoiliarrak 101 urte bete ditu. Urtebetetzea ospatzeko izugarrizko jaia ospatu genuen



Ohiturei jarraituz, Barrika Barri eta Kirikiñoko egoiliar talde batek Begoñako Amatxu bisitatu zuen. Beti egun bereziak aprobetxatzen ditugu txangoak egiteko



ALMI Ikasketa Zentroaren ikasleak Kirikiñora etorri ziren belaunaldien arteko bizipenak konpartitzeko. Trini, egoiliar bat, zentrorra joan zen bisita bueltatzera eta motibazioari buruzko berbaldia ematera



Urtero bezala, Bilboko Aste Nagusira joan ginen egoiliarrekin. Marijaiak, beso zabalik, hartu gintuen eta egun dibertigarriak igaro genituen



Berriro Guztion Artean Foroaren gosaria antolatu dugu. Amurrio eta Arrankudiagako Udalak eta Gurutzetako Salesianoak Ikastetxea saritu genituen, gizar-teari dagokionez, erantzule direlako

